

BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

2957

EBAZPENA, 2013ko ekainaren 14koa, Justizia Administrazioko zuzendariarena, Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen bulego judizial berria martxan jartzeko eguna finkatzeko dena.

Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundea arautzen duen azaroaren 21eko 236/2012 Dekretuan xedatutakoaren arabera, Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundeko bulego judizial berria bertako langileak egokitzeko prozesua amaitu ondoren jarriko da martxan.

Justizia Administrazioko zuzendariaren 2013ko ekainaren 13ko Ebazpenaren bidez ebatzi zen egokitzapen-prozesua; ondorioz, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– 2013ko uztailaren 1a ezartzea Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen bulego judizial berria martxan jartzeko eguna.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua jarri ahalko zaio Justiziako sailburuordeari, ebazpena Justiziako langileen atarian argitaratu eta hilabeteko epean.

Gora jotzeko errekurtsua jarri eta hiru hilabete igaro ondoren ebazpenik eman ez bada, ezetsi egin dela ulertuko da, eta administrazioarekiko auzietako bidea zabalik geratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekainaren 14a.

Justizia Administrazioko zuzendaria.
JON ARTURO URIARTE UNZALU.